

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BARRUNDIAKO UDALA

Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak dirulaguntzak

Alkate-udalburuak, 2019ko azaroaren 25eko 519. erabakiaren bidez, "Udalerriko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak sustatzeko eta garatzeko" arloan dirulaguntza ematearen deialdia onartu zuen.

Deialdiaren eranskina honako hau da:

UDALERRIKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZAKO USTIATEGIAK SUSTATZEKO ETA GARATZEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

1. Oinarri laguntzaileak

Dirulaguntza hauek deialdi honetan araututakoaren arabera xedatuko dira; udalerriko nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza; dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra; uztailaren 21eko 886/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako dirulaguntzen legearen Araudi Orokorra; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; martxoaren 8ko 130/2019 Errege Dekretua, Dirulaguntzen Datu Base Nazionala eta dirulaguntzen eta gainerako laguntza publikoak arautzen dituen eta kasuan kasuko aplikagarriak diren administrazio arloko zuzenbideko arauak, eta horiek ezean, zuzenbide pribatuko arauak.

Dirulaguntza hauen emakidarako prozedura, dirulaguntzetarako zuzendutako gehiengo zenbatekoa, dirulaguntzaren onuradunen artean hainbanatzea izango da.

2. Aurrekontu zuzkidura

Dirulaguntza atxikitzen zaion aurrekontu zuzkidura honako hau da: 412.770.000, eta dirulaguntza deialdiako gehienezko zenbatekoa 3.000,00 eurotakoa da.

3. Dirulaguntzaren xedea, baldintzak eta helburua

Dirulaguntza honen helburua, zati batean, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietan hobekuntzak edo eraikin berria egiteko obrak finantzatzea da, udalerrian bertan eginez gero, bai eta ohiko etxebizitzaren eraikuntza ere, nekazaritzako eta abeltzaintzarako ustiategietan titularrena baldin bada.

Deialdi honetan zehaztutako laguntzen emakida honako hastapen hauetan oinarrituko da: publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, halaber helburuak betetzeko efikazia eta baliabide publikoen erabilpen eta atxikipen eraginkorra.

4. Dirulaguntza eskatzeko eta hauek kreditatzeko betebeharrak

Dirulaguntza eskatzeko baldintzak honako hauek dira:

- Pertsona fisiko edo juridikoak. Pertsona fisikoak badira, jabeetako batek gutxienez udalerriko honetan erroladuta egon behar du eta bertan eduki behar du ohiko bizilekua, eskabidea aurkeztu baino bi urte lehenagotik gutxienez.

- Nekazaritza edo abeltzaintzako jarduera ogibide Nagusia izan behar da. Hori frogatzeko, norberaren konturako nekazarien Gizarte Segurantzako erregimen berezian edo nekazaritzan diharduten autonomoen erregimenean alta emanda egotearen agiria aurkeztuko da. Egoera

hori laguntzarako eskabidea aurkezten den momentuan eta laguntza ematen den momentuan frogatu beharko da. Aurkeztutako azkeneko errenta aitopenen gainean Foru Ogasunak egingako ziurtagiria ere aurkeztu beharko da. Bertatik, ondorioztatu egin behar da eskatzailearen ohiko diru sarreren ehuneko 50 baino gehiago nekazaritzako edo abeltzaintzako jardueraren ustiapenetik datorrela.

- Nekazaritzako ustiategien eta modu ofizialean ezarritako jardueren erregistroan inskribaturik egon beharko da, eta bereziki nekazaritzako familia ustiategien erregistroan, erakunde publiko eskudunek zehaztutako inguruabarren arabera.

Dirulaguntzak emateari dagokionez, nekazaritza edo abeltzaintzako ustiategia honela definituko da: titularrak, nekazaritzan ari dela enpresa moduan antolatutako ondasun eta eskubideen multzoa, funtsean merkatuko xedeak dituena, eta berez unitate tekniko-ekonomiko bat osatzen duena.

Honako hauek ez dira nekazaritzako ustiategitzat joko:

- Nekazaritzako enpresa osagarriak, lurrik eduki gabe ere nekazaritzako produkzioan laguntzen dutenak nekazaritzako makinak lagata, edozein izanda ere kontratuaren mota, edota nekazaritzako ustiategietako erabili diren zerbitzuetako beste edozein eskainiz.

- Zaldiketarako edo lasterketarako zaldien ustiategiak, zaldien hazkuntzan dihardutenak izan ezik.

- Lorrerako edo lanerako abereen ustiategiak, hazkuntzan dihardutenak izan ezik.

- Txakurtegiak, animalia dendak, hiltegiak eta antzekoak.

- Mota guztietako parke zoologikoak, bai animaliak esparruetan dituztenak zein aske dituztenak, eta animalien erakusketak.

- Lagun egiteko animalien haztegiak.

- Arrain haztegiak.

- Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategi baten titular gisa lehen aldiz kokatzen diren 40 urtetik beherako pertsonak, ezin badute frogatu ustiategiak behar adina urte dituela eta baliabideen ehuneko 50 baino gehiago bertatik ateratzen dituztela, horren orde frogatu ahalko dute nekazaritzan bi urtetik gorako lanbide esperientzia dutela eta nekazaritzako enpresan sartzeko ikastaro trinkoa egin dutela, edo bestela kasuan kasuko nekazaritza jarduerari buruzko etengabeko prestakuntzako ikastaroa, gutxienez ere ehun eta berrogeita hamar ikastorduko.

- Eskatzaileek ezin izango dute zorrik izan Herri administrazioetan, antzeko erakundeetan eta dagozkien aprobeitxamenduak arautzen dituztenetan; hau da, zerga betebeharrak, kanonak eta kuotak ordainduta eduki behar dituzte; bestela, ezin izango dute dirulaguntzarik jaso.

- Dirulaguntza edo laguntza nekazariaren edo abeltzaintzaren ohiko etxebizitza eraikitzeke erabiltzen denean, honako hau ere frogatu beharko da:

- Etxebizitza moduan erabiltzen den beste higiezin baten jabe ez izatea.

- Dirulaguntzaren xede den etxebizitza, 15 urteko epean, ohiko etxebizitza izango dutela eta ez dutela besterenduko agindu beharko dute, eta konpromiso hori bete ezean dirulaguntza itzuli beharko dute.

Eskatzaileek betebeharrak, era honetan, kreditatu beharko dituzte:

- Banakako eskabidea, dirulaguntza zein obratarako eta zein jarduerarako eskatzen den zehazturik.

- Obra proiektua eta egin beharreko lanen aurrekontu banakatua, obretarako udal lizentzia lortzeko behar denaren arabera.

- Errolda agiria eta gutxienez bi urtean udalerrria ohiko bizilekua izan dela frogatzeko agiria.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategien erregistroaren ziurtagiria eta Gizarte Segurantzarena, ordenantzaren 5. artikuluan aipatutakoak.
- Foru Ogasunaren ziurtagiria, diru sarrera arrunten ehuneko 50 baino gehiago nekazaritza edo abeltzaintzako jardueratik ateratzen direla dioena.
- Etxebizitza moduan erabiltzen den beste higiezin baten jabe ez izatearen frogagiria dirulaguntzaren xedea etxebizitza eraikitzea denean.

5. Prozedura izapidetzeko eta ebazteko erakundea

Agiria izapidetzeko organo eskuduna udaleko arkitekto teknikoa da.

Ebazteko organo eskuduna alkate-udalburua da.

6. Eskabideak eta dokumentazioa aurkezteko epea

Eskabideak Udaleko alkate-udalburuari zuzenduko zaizkio, eta Udalaren sarrera erregistroan edota urriaren 1eko 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren 16.4 artikulua xedatutako edozein bitarteko bidez aurkeztuko dira, 2019ko abenduaren 30era arte.

Interesdunek eskabideei deialdian edo arauan zehaztutako dokumentuak edota informazioak atxiki beharko dizkie, salbu jarduneko administrazio edozein organoan jadanik badaude, edota beste edozein administrazioak jadanik eginda badauka. Jarduneko administrazioak dokumentu horiek aztertu edo jaso ahal ditzake, salbu interesdunek bere aurkakotasuna erakusten badu.

Eskabideak deialdiaren arauan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, organo eskudunak interesdunari aginduko dio 10 egunetako gehienezko eta luzaezinezko epean berori osatzeko, zera adieraziz, hori horrela ez balitz bere eskabidea ezetsitatz emango dela.

7. Ebazpenerako proposamena, epeak eta jakinarazpenak

Behin eskabideak aztertuta, organo izapidegileak ebazpenerako proposamena luzatuko du. Horretan, dirulaguntzaren emakida noren alde proposatzen den eskatzaileen zerrenda edota eskatzailea zehaztu beharko ditu eta bere zenbatekoa, ebaluaketa zehaztuz eta berau gauzatzeko jarraitutako balorazio irizpideak.

Behin behin betiko ebazpen proposamena, organo eskudunak prozedura ebatziko du. Ebazpenak, dirulaguntza noren alde ematen den eskatzailearen edota eskatzailearen zenbatekoaz gain, aitzitik, ezestutako gainerako eskabideak zehaztu beharko ditu.

Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea 3 hilabetetako izango da.

Ebazpena jakinarazitako gehienezko epean emango ez balitz, interesdunek, era legitimoan, dirulaguntzaren emakida administrazio-isiltasuna bidez ezetsitatz ulertuko dute.

8. Administrazio bidearen amaiera

Dirulaguntzaren ebazpenaren egintzak administrazio bidea amaitutzat jotzen du.

Urriaren 1eko, 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera, ebazpen horren aurka Udala honen alkate-udalburuaren aurrean, jakinarazpena hartzen den biharamunetik zenbatuta hilabeteko epean, berraztertze helegitea jar dakioko, edota zuzenean Vitoria-Gasteizeko administrazioarekiko auzitegiaren aurrean, jakinarazpena jasotzen den biharamunetik zenbatuta, bi hilabeteko epean, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenaren 46. artikulua xedatutakoaren arabera.

9. Jakinarazteko edota argitaratzeko bitartekoak

Jakinarazpenak eskatzaileak bere eskabidean zehaztutako tokian eta bitartekoz gauzatuko dira, urriaren 1eko, 39/2015 Legearen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearenaren 41. artikulua xedatutakoaren arabera.

Ozaetan, 2019ko azaroaren 28an

Alkatea

IGOR MEDINA ISASA